

#### **4. TEORIA ETOLOGIKOAK**

Etologiak giza garapenean egin dituen ekarpen teorikoak landuko dira gai honetan. Lehen zatian, etologiarekin zerikusia duten hiru autore garrantzitsuenen lanak aztertuko dira. Alde batetik, Lorenzen eta Tinbergenen ekarpenak ikusiko ditugu; autore horiek etologia klasikoaren aurrekariak izan dira. Bestetik, Bowlbyren ekarpenak; giza etologia ikertzeaz arduratu zen autore hori.

Etologiak XVIII.-XIX. mendeetako alemaniar zoologian du jatorria. Jaiotzetiko jokabideen ikerkuntza zientifikoan interesa zuen jakintza gisa sortu zen, eta XX. Mendeko hogeita hamarreko hamarkadatik aurrera hartu zen diziplina berezizat, Konrad Lorenz eta Niko Tinbergen europar zoologoek lanetan oinarri hartuta. Egile horiek etologia modernoaren oinarriak finkatu zituzten animalia-jokabideak ingurunean izaten duen egokitzapenari buruz egindako behaketen eta azalpenen bidez, eta, hala, etologiako kontzeptu funtsezkoen zati handi bat landu zuten.

Ikuspegi etologiakoa berandu samar aplikatu zaio giza espezieari; Bowlbyk (1969) egin zuen etologia garapenaren psikologiara hurbiltzeko ahaleginik handiena, XX. mendeko hirurogeiko hamarkadan atxikimenduari buruz egin zituen azterketei esker.

##### **4.1. Etologia klasikoa: Konrad Lorenz, Niko Tinbergen**

Etologoek espezie guztien partaideak biologikoki progamatutako hainbat jokabidekin jaiotzen direla uste dute. Jokabide hauek eboluzioaren emaitza dira eta, eta adaptatiboak dira, nolabait biziraupena bermatu ahal izateko. Hala ere, onartzen dute predisposizio biologikoak soilik ez duela garapena bermatzen, baizik eta beharrezkoa dela ingurunearen papera.

Bestetik, bi ideiak azpimarratzen dituzte: 1. haurra jaiotzerakoan ez dela tabula rasa bat, baizik eta zenbait jokabide zehatzekin jaiotzen dela (erreflexuak, zenbait mugimendu...). Eta 2. epe zehatz bat (epealdi kritikoa) dagoela filogenesiaren ondorioz eman behar diren aldaketak emateko. Beraz, aldaketak emateko beharrezkoa izaten da estimulazioa denbora zehatz batean agertzea, denbora horretatik kanpo garapen normala oztopatua ikusi egingo baita.

Etologoek azterketa naturalistak burutzen dituzte, hau da, ikerketak ingurune naturalean gauzatzen dituzte eta ez laborategietan.

##### **4.2. Giza etologia: Atxikimenduaren teoria**

Bowlby psikoanalistak etologiaren berri zuenez, bere behaketa klinikoak segurtatzeko eta atxikimenduaren teoria izenekoa formulatzeko aukera izan zuen.

Bowlbyren ikuspegitik, haurra, elikagaien hartzaile pasiboa baino gehiago, atxikimendu-irudien bilatzaile aktiboa da; espezieak bizirik irautea errazten duen jatorrizko eta oinarrizko afektu-behar bati erantzuten dio jokabide horrek.

Bowlbyren ustez (1986), haur jaio berriak amarenganako duen atxikimenduak espeziearen jokabide-sistema bereizgarrien kopuru jakin batean du jatorria. Honako jokaera-sistema nagusi hauek dute eragina atxikimenduan: zupatzea, heltzea, negar egitea, barre egitea eta besarkatzea. Atxikimendu-jokabideek honako baldintza hauek sortzen dituzte: amarenganako uruntasunak, nekeak, goseak, ondoezak, beldurrak, kideengandik baztertzeak edo pertsona arrotz batekin egoteak. Haurraren seinaleei erantzuten dien amak (oihu egin, barre egin, zezelka egin, dei egin, besoak luzatu) bere jokabidearekin lasaitzen ditu. Horregatik, amahaur “elkarrekintza-elkartzea” hurbiltze-jokabideen, zaintzen eta argi eta garbi amarenak diren beste jokaera batzuen ondorioztat hartzen da.

Atxikimendu- eta hurbiltze-jokabideen “soldatzea” seigarren hilabetean gertatuko da. Lehen hamabi asteetan, pertsona-diskriminaziorik gabeko seinaleak daude. Ondoren, hainbat pertsonaren artean bereizten hasten dira, eta, seigarren hilabetetik hiru urtera arte, amarenganako hurbiltze etengabea eta arrotzen aurreko baztertze-jarrera gertatzen da.

Laburbilduz, atxikimenduaren teoria garapenaren azalpen garrantzitsua da: lotura esperientzia goiztiarrek geroagoko garapenean duten garrantzia berretsi du; hainbat gaitasunen eta jokabideren (barruko segurtasun-sentipena, gizartekoitasuna, inguruko mundua esploratzeko gaitasuna, bakardadea onartzea eta abar) eta garapenaren artean dagoen erlazioa frogatu du; eta garapen afektiboari buruzko (heldutasuna, gaitasun enpatikoa, egonkortasun emozionala, eta abar) azalpen garrantzitsuak eman ditu.

## **5. TESTUINGURUNEAREN TEORIAK**

### **5.1. Lev S. Vygotski (1896-1934): Teoria soziokulturala**

Vygotskik giza garapena testuinguru sozialaren barruan kokatzen du eta testuinguruarekin lotutako ikuspegia planteatu zuen lehen aldiz. Kulturak garapenean duen eragina aztertzea zen haren interes nagusia. Haren ustez, talde jakin batek une jakin batean dituen ohiturak eta talde horrek historian zehar izan dituen lorpen zientifikoak, materialak, intelektualak eta artistikoak daude kultuaren barruan. Uste zuen umeak testuinguru soziokulturalaren eta historikoaren eragina duela, eta, horren ondorioz, umeak testuinguru horretan eragin zuzena duela. Haurraren gaitasun psikologikoaren garapena gerta dadin, besteekiko harremanak ezinbesteko motorra dira. Horiek zeinuen bidez gauzatzen dira jendartean, eta hizkuntza izango da pertsonen arteko harremanak bideratzeko sortu eta moldatu den zeinu-sistematik emankorrena.

Bere ekarpenen artean azpimarratzeakoa dira *Formazio bikoitzaren legea* eta *Garapen hurbileko eremua* delakoak. Ondoren, bi kontzeptu horiek azalduko dira, hurrenez hurren.

#### **Formazio bikoitzaren legea**

Lege horren arabera, funtzio psikologiko gorenak, hala nola arreta boluntarioa, mintzaira eta borondatea (zerbait nahita egiteko gaitasuna), bi aldiz

agertzen dira: lehenengo, maila sozialean, hau da, pertsonen artean, eta gero, maila indibidualan (barneratze prozesu baten bidez). Lehengoari *maila interpsikologikoa* deitu zion eta bigarrenari, berriz, *maila intrapsikologikoa*. Horren ondorioz, azaltzen du prozesu psikologiko gorenak gizakien arteko harreman bezala sortzen direla. Adibidez, mintzamina garatu ahal izateko, harreman horiek ezinbestekoak dira; ez ginateke hitz egiteko gai izango, baldin eta lehenago hitz egin ez baligute; edo, ez genuke autoestimatu positiborik izango, baldin eta besteek ez bagintuzte maitatu edo balioetsiko.


### Garapen hurbileko eremua

Kontzeptu honen bidez, Vigotskik garapenaren eta hezkuntzaren arteko harremana azalduko du. Garapen hurbileko eremua garapen maila errearen eta garapen maila potentzialaren arteko distantzia da.

Giza harremanen bidez helduok hauraren garapen psikologikoan eragin ona izan nahi badugu, hauraren garapen hurbileko eremuan eragin behar dugu. Vigotskik bi garapen maila bereizi zituen: batetik, jada lortutako garapena edo garapen erreala, inoren laguntzarik gabe egiten dituen era guztietako eragiketek adierazten dutena. Bestetik, norbera baino helduago diren beste pertsona batzuen laguntza egokiaren bitartez egiten dituen eragiketek adierazten dutena da garapen maila potentziala.

Aipatu behar da *garapen maila erreala* norberak bere kabuz arazo bat konpontzeko gaitasunak zehazten duela, eta *garapen maila potentziala*, berriz, arazoa konpontzeko gaitasun handiagoa duen heldu edo kide baten laguntzaz arazoa bideratzeak zehazten duela. Beste era batera esanda, inguruneak behar diren baliabideak eskainiz gero, umeak dakienaren eta egin dezakeenaren artean egin beharreko distantzia da garapen hurbileko eremua.

Garapen hurbileko eremuan, umeek betebeharrak jakin batzuetarako gaitasuna erdi garaturik izango dute, baina ez erabat. Irakaskuntza egoki baten bidez gaitasunak guztiz garatzea lortuko dute. Hala, irakasle on batek berehalako garapen-esparrua bilatu eta horretan ikasten lagundu behar dio umeari. Ondoren, poliki-poliki, laguntza kenduz joango da umeak betebeharra inongo laguntzarik gabe egin dezan. Azken prozesu horri *andamiajea* deitu zaio.



Vygotskiren arabera, helduekin edo beste ume batzuekin izandako elkarrekintzak hezkuntzarako baliabide horiek dakartza; horiei esker, umeak beste funtzio psikologiko batzuk barneratzen ditu edo aurrez zeudenak berregituratzen ditu. Hor, oraindik heldutasunik ez duten, baina heldutasun-prozesuan dauden funtzioak kokatzen dira. Horiek, etorkizunean, heldutasuna lortuko dute, baina, oraingoz, "lotan" daude.

## 5.2. Urie Bronfenbrenner (1917-2005): Teoria ekologikoa

Haurraren garapena ulertzeko, Urie Bronfenbrenner-ek (1917-2005) sortutako teoria ekologikoa inplikazio garrantzitsua izan du.

*Teoria ekologikoa* Bronfenbrennerrek (1986) eta Bronfenbrennerrek eta Morrisek (1998) garapenaren ingurune-sistemaz duten ikuspegia da. Bost ingurumen-sistematan oinarritzen da; hurbileko pertsonen arteko elkarrekintzak nahiz kulturaren oinarritutako eragin zabalak biltzen ditu, besteak beste:

- *Mikrosistema*: norbanakoaren bizi-eremua. Testuinguru horretan, familia, adiskideak, eskola eta auzoa sartzen dira. Testuinguru horietan, norbanakoa ez da esperientzien hartzaile pasibotzat hartzen, baizik eta bere testuingurua eraikitzen laguntzen duen norbait da.
- *Mesosistema*: mikrosistemen loturak edo testuinguruaren arteko konexioak biltzen ditu. Esate baterako, familia-esperientzien eta eskola-esperientzien artekoak, eskola-esperientzien eta lan-esperientzien artekoak eta familia-esperientzien eta parekoekin sortzen diren esperientzien artekoak.
- *Exosistema*: norbanakoak horretan eginkizun aktiboa ez izanda ere, gizartetestuinguru bateko esperientziak (komunikabideak, gizarte-zerbitzuak, auzoelkarteak eta abar) norbanakoaren testuinguru hurbilean eragiten dute.
- *Makrosistema*: norbanakoaren ingurune kulturala. belaunaldi batetik bestera igarotzen den pertsona talde baten jokabide-ereduek, sinesmenek eta beste hainbat ezaugarri osatzen dutela kultura.
- *Kronosistema*: bizitzan zehar gertatzen diren gertakarien ereduak eta ingurune trantsizioak, baita eragin sozio-historiakoak ere.

Teoria ekologikoari hainbat kritika egiten zaizkio: batetik, azken urteetako eragin biologikoei buruzko eztabaiden ondoren, oraindik ere, garapenaren oinarri biologikoei oso arreta txikia ematea; eta, bestetik, teoriak prozesu kognitiboei arreta desegokia ematea.

